



## MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

### ZERGATIK OSPATZEN DA?

1857ko martxoaren 8an, New Yorkeko emakume langile talde batek kalera ateratzea erabaki zuen, laneko egoera salatzeko eta beren eskubideak aldarrikatzeko. Protesta hark beste batzuk piztu zituen gero, eta munduko emakume asko hasi ziren lan-baldintzak hobetzeko aldarrikatzen.

Historia honetako pasarterik ezagunena —eta, dirudienez, guztiz egia ez dena— 1908koa da. Diotenez, New Yorkeko fabrika handietan josten lan egiten zuten emakumeek greba egin zuten, eta fabrikaren jabeak lantokiko ateak itxi eta su eman omen zion eraikinari, haiek barruan zeudela. Martxoaren 8an gertatu omen zen.

Ezin da, ordea, ziurtatu Emakumearen Egunaren ospakizunaren jatorria hori denik. Ondo dokumentatuta dagoena, berriz, 1910ean gertatutakoa da: Emakume Sozialisten Nazioarteko Konferentzia Kopenhagen bildu zen eta han Clara Zetkin politikariak Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna egitea proposatu zuen. Konferentzian bildutako 17 naziotako 100 emakumek baino gehiagok onartu zuten proposamena eta, hartara, nazioarteko egun hori 1911ko martxoaren 19an ospatu zen lehen aldiz, Alemanian, Austrian, Danimarkan eta Suitzan.

Denborak aurrera egin ahala, aldarrikapenak ere aldatzen joan ziren: 1913an eta 1914an Errusiako eta Europako emakumeek Emakumearen Eguna ospatu zuten, I. Mundu Gerraren aurka protesta egiteko eta munduko emakumeei elkartasuna adierazteko. 1917an, Errusiako emakumeek otsaileko azken igandea hautatu zuten greban hasteko, «ogia eta bakea» lelopean, Gerra Handian hildako 2 milioi errusiarren omenez. Errusiako Tsarrak lau egunetara abdikatu zuen eta gobernu sortu berriak, martxoaren 8an, eskubidea aitortu zien emakumeei botoa emateko. Hori dela eta, Emakumearen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an ospatzera pasatu zen.

1975ean, Nazio Batuen Erakundeak Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izendatu zuen martxoaren 8a. Euskal Herrian 1977an ospatu zen aurreneko aldiz, Bilbon, eta geroztik urtero antolatu da.

### ZERGATIK KOLORE MOREA?

Hasieran aipatutako New Yorkeko fabrikan oihal morea ehuntzen ari ziren, eta horregatik bihurtu da morea feministen kolorea.

